

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Behin betiko onestea 19. sektorearen (Aretxabaleta-Gardelegi) plan partzialaren hamaikagarren aldakuntza

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 19. sektorearen Plan Partzialaren hamaikagarren aldaketa puntualari dagokionez, Udal Osoko Bilkurak 2016ko urtarrilaren 29a ondoko erabakia hartu duela jakinarazten dizut:

1. Comaberri Gestión Inmobiliaria, SL enpresak sustatutako eta J. J. L. arkitekto jaunak idatzitako 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren hamaikagarren aldaketa behin betiko onartzea.
2. Arabako Foru Aldundiari Planaren kopia bat igortzea (gordailatzeko), eta 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren hamaikagarren aldaketari buruzko erabaki hau ALHAO aldizkarian eta tirada handieneko egunkarietako batean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik.
3. (Aretxabaleta-Gardelegi) 19. sektoreko hitzarmen-batzarrari eta Aretxabaleta eta Gardelegiko administrazio batzarrei erabakiaren berri ematea
4. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 1an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARA AGIRRE